

URRIA AZAROA ABENDUA 2022

3 Erakusketak

Artium Museoa Bilduma. Zeru bat, hamaika bide: praktika artistikoak
Euskal Herrian 1977-2002 aldian
Artium Museoa Bilduma. Bigarren bidea
Néstor Sanmiguel Diest. La peripecia del autómatas
Iván Zuluetaaren asaldura
Jutta Koether. Black Place

9 Jarduerak

Museoaren etorkizunak; Elvira Dyangani Ose eta Yaiza Hernández / Asier Mendizabal
Ikasgeletatik espazio publikora. Titulazio amaierako lanen aurkezpena
Arte garaikideko Dokumentazio Zentroen XI. topaketak
Hasieratik. Zinema feministaren historiak III
Euskal emakume zinemagileak II. Euskadiko Filmmategia
Bisita gidatuak. LORATEGItik
Bisita gidatuak. #Bilduma_Gordailuan
Familiantzako programak
Eguberrietako lantegiak
Artium Museoko lorategia zaintzeko lantegia
Lankidetzak

26 Bilduma

Bilduma, ikusgai
Bilduma ibiltari
Artelan nabarmendua

31 Hezkuntza

Museoa, eskola gisa
Magnet-Erakarri. Etorkizuna proiektatuz

35 Liburutegi eta Dokumentazio Zentroa

Euskal Emakume Artisten, Praktika artistikoen eta Artearen Teoria feministen
Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa
Gomendatutako irakurgaiak

39 Egutegia

Agenda eguneratua zure mugikorrean



Frantzia kalea, 24
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 00 (34) 945 20 90 20
Info: museo@artium.eus
www.artium.eus

MUSEOA

Asteartetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

Larunbat eta igandeetan, 11:00etatik 20:00etara

Jaiegun ez diren astelehenetan itxita

Urriaren 12an: 11:00etatik 20:00etara

Urriaren 31an eta azaroaren 1ean: 11:00etatik 20:00etara

Azaroaren 2an, asteazkena: itxita

Abenduaren 3tik 11ra: 11:00etatik 20:00etara

Abenduaren 27tik 30era: 11:00etatik 20:00etara

Abenduaren 24an eta 31n: 11:00etatik 14:00etara

Abenduaren 25ean: itxita

LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZENTROA

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era

TARIFAK

Doako sarrera

- Arratsaldero
- Asteazken eta igandeetan egun osoan
- 14 urtez azpikoentzat, ikasleentzat, langabetuentzat eta pentsiodunentzat

Tarifa orokorra: 5 €

ERAKUSKETAK




A0 aretoa. Artium Museoa

Artium Museoa Bilduma. Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian

2020ko otsailaren 8tik 2023ko urtarrilaren 8ra arte
A0 aretoan

Erakusketa honek Artium Museoaren funtsak ditu ardatz, eta euskal testuinguruko jardun artistiko eta kulturaleri buruzko gogoeta zabala proposatzen du. 1977. urtea da *Zeru bat, hamaika bide* erakusketaren abiapuntua, urte horretan eman baitzitzaion hasiera mugarri politiko, sozial eta kultural handiek ekarri zituen aldiari: lehenengo hauteskundeak lau hamarraldiko diktaduraren ondoren edo esparru instituzional berri baten sorrera eragin zuen legeen aldarrikapena. Urte horretan, halaber, Emakumearen Lehenengo Jardunaldiak antolatu ziren Bilboko Unibertsitateko Leioako campusean (handik hiru urtera Euskal Herriko Unibertsitatea bihurtuko zen).

Zeru bat, hamaika bide narratiba ireki, inklusibo eta etengabe eraikitzen ari den baten eran planteatu da, eta ehundik gora artelan, dokumentu eta artxiboko material bildu ditu museoko aretoetan. Era horretara, ibilbide luze bat egiten du proiektuak hartzen duen mende-laurdenean sortutako adierazpenen ugaritasunean barrena.



A0 aretoa. Artium Museoa

Zeru bat, hamaika bide. Bigarren bidea

2020ko otsailaren 8tik 2023ko urtarrilaren 8ra arte

A0 aretoa

Bere jatorri ilustratutik hasita, feminismoa internazionalismoa izan da beti. 1975ean, Espainian diktadorea hil zen urtean, feminismoaren Hirugarren Olatu Handiak, 60ko hamarkadatik Atlantikoaren bi aldeetan garatuz zihonanak, mugarri bat gainditu zuen Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatu zenean eta Nazio Batuen Erakundeak babestutako Emakumeari buruzko lehen Mundu Konferentzia Mexikon ospatu zenean. Olatu hori bera artearen arlora ere iritsi zen lehendabiziko aldiz, artearen eta feminismoaren arteko elkargunean praktika artistiko eta teorikoa sortuz. Mugimenduak oihartzun zabala izan zuen nazioartean, besteak beste, Linda Nochlin-en *Why Have There Been No Great Women Artists?* (Zergatik ez da historian artista emakume handirik egon?) artikuluari esker.

Mugimendu antifrankistekin batera, mugimendu feminista hasiberri bat, tartean artistak ere badituena, emakumeen diskriminazioaren, zapalkuntzaren eta esplotazioaren aurka hasi zen lanean Euskal Herrian. *Zeru bat, hamaika bide* erakusketak testuinguru horretan sakontzen du, garaiko pieza artistikoen eta dokumentazioaren bigarren emanaldia den *Bigarren bide* honekin (*Hemen dira hutsunean igeri egindakoak* izan zen lehena).



Néstor Sanmiguel Diest
La peripecia del autómata

2022ko ekainaren 24tik azaroaren 1era
A3 aretoa

Néstor Sanmiguel Diesten (Zaragoza, 1949) obrari eskainitako erakusketa honek laurogeiko hamarkadaren amaieratik hasi eta gaur egunera arteko ekoizpena lantzen du. Ohiko atzera begirako erakusketa gisa egituratu ordez, haren ibilbideko une batzuetan eta besteetan gauzatutako lan sortak zabaltzen ditu, eta bere burua «lantegiko artista» gisa definitzen duen egile honen praktikan murgiltzeko aukera ematen duen ibilbide bat marrazten du.

Konbentzio orori bizkarra emanez, bere lanean maiz aipatzen ditu artea, literatura eta musikaren historia, baina baita eguneroko kontu arruntak ere, bere piezetan dokumentuak, fakturak, testu-zatiak, oharrak edo prentsa-orriak txertatzen baititu.

La peripecia del autómata aldi bereko bi erakusketatan hedatzen den komisariatza proiektua da: bata Madrilen, Reina Sofia Museoaren Velázquez Jauregiaren egoitzan eta bestea Gasteizen, Artium Museoan, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoan.



***Iván Zulueta*ren asaldura**

2022ko urriaren 14tik 2023ko martxoaren 5era
A1 aretoa

Erakusketa honek Ivan Zulueta (Donostia, 1943-2009) euskal zinemagilearen irudiari eta lanari buruzko hurbilketa bat proposatzen du. Haren filmografiako pelikulak, artista grafiko gisa egindako lana, harremana izandako pertsoneri eginiko elkarrizketak eta *memorabilia* erabiliz, Zuluetak irudiaren inguruan egin zuen esperimentazio etengabearen oinarrituta sortu zuen unibertsoa aztertzen du erakusketak.

Pinturaren eta marrazkiaren hurbileko planteamenduetatik abiatuta, Zuluetak zinemaren mugak aztertu zituen irudiaren inguruan hausnartzeko, haren enigma argitzeko, ikuslea bahitzeko duen ahalmenean barneratzeko. Zentzu horretan, eguneroko bizitzan egindako etenaldi bat izan zen harentzat zinema, amets egiteko, pentsatzeko gune bat. «Etenaldia Akilesen orpoa da, iheslekua, gure aukera bakarra» dio bere pertsonaietako batek. Are gehiago, zinema bera —pasio ooren antzera jasaten duena irenstera irits daitekeena— bere filmografia laburreko gai handienetako bat da. Bere lanean, bitarteko horrek une bat, bizipen bat artifizialki harrapatzeko tresna gisa zituen aukerak areagotu zituen, zinemari —hitzez hitz— fotogramaz fotograma barrenak atera arte.

Komisarioa: Xabier Arakistain
Espainiako Filmategiaren laguntzarekin



Polsprung, 2002. Jutta Koether.
Galerie Buchholz-en adeitasunez

Jutta Koether ***Black Place***

2022ko urriaren 28tik 2023ko apirilaren 16ra
A2 aretoa

Laurogeiko hamarkadaren hasieratik, Jutta Koetherrek (Kolonía, 1958) pinturan oinarritutako eta idazkerak, performanceak eta musikak zeharkatutako praktika artistiko bat garatu du. Praktika horiek artearen historiografiarekiko diziplinarik ez izaten eta bere genealogiak bilatzen lagundu diote. Koetherren lana ezkutuan eta modu desobeditzailean hurbiltzen zaio margolaritzaren historiari, eta feminismoak eraturako praktika artistiko baterako leku gisa aldarrikatzen du baliabide hori.

Erakusketa honek formatu eta material askotako lanak biltzen ditu; Poussin, Rubens, Cézanne... Margolarien lanen berreskuratze gisa har daitezkeen oihal handiak –lehen aldiz erakutsi ziren lekuetan ia modu performatikoan eginak eta beren egikeraren berehalakotasun zentzuarekin–, edota formatu ertain eta txikiko lanak, era askotako euskarrietan eginak, non Koetherrek beste material batzuk aplikatzen dituen, ohiko pinturatik kanpo.

Black Place artistaren lehen erakusketa monografikoa da estatuan eta hiru hamarkada baino gehiagoko lana biltzen du.

Urriaren 28an
Solosaldua artistarekin 18:00etan

JARDUERAK

Museoaren etorkizunak

Bere 20. urteurrenaren ospakizunen barruan, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak, Artium Museoak, artearen arloko eragileekin topaketa batzuk programatu ditu, museoen etorkizuneko ikuspegiei, haien gizarte- eta ondare-erantzukizunari eta ezagutzaren sorkuntzari buruzko hainbat ikuspegi emateko.



Elvira Dyangani Ose eta Yaiza Hernández

Elkarrizketa honetan Elvira Dyangani Ose eta Yaiza Hernández museoaren eginkizunaren inguruan dituzten ideiez arituko dira, baita etorkizunerako proiektioez ere. Dyangani Ose nazioarteko hainbat erakundetan eta, orain, Bartzelonako Museu d'Art Contemporaniren zuzendari gisa izandako esperientziez arituko da, eta Hernandezek museoaren etorkizunak birpentsatzen lagun diezaguketen gogoeta teorikoak egingo ditu.

Elvira Dyangani Ose Bartzelonako MACBA, Museu d'Art Contemporaniren zuzendaria da.

Yaiza Hernández Velázquez filosofoa da eta Goldsmiths University of Londoneko Ikusizko Kulturen Departamentuko irakaslea.

Azaroaren 7an, 18:30ean

Erreserbak 945 20 90 20. Sarrera doan. Leku mugatua

Museoaren etorkizunak



Asier Mendizabal: *Gerorako gorde*

Hitzaldi honetan Mendizabalek bere lana museografiarekin, bildumarekin eta kanonarekin gurutzatu den une batzuk jorratuko ditu. Bere hiru proiekturen bidez, proposatuko du bilduma oro material-pilaketa kontingentea dela nahitaez. Etorkizunean gure oraingo hautuez sintoma gisa egingo diren irakurketek bihurtuko dute kontingentzia hori esanguratsu eta bilduma bat kontakizun.

Asier Mendizabal (Ordizia, 1973) artista bisuala da eta hainbat hezkuntza proiektutan parte hartzen du, aldi berean KKHn Stockholmeko Royal Institute of Art-en eskultura irakasle dela.

Abenduaren 2an, 18:30ean

Erreserbak: 945 20 90 20. Sarrera doan. Leku mugatua

Ikasgeletatik espazio publikora III



Euskal Herrian arte garaikidearen inguruan egindako titulazio amaierako lanen bilduma bat.

Artium Museoa eta EHuko Artearen eta Musikaren Historia Sailak hirugarren edizio hau antolatu dute Gradu Amaierako Lanak (TFG), Ikasketa Amaierako Lanak (TFE) edo Master Amaierako Lanak (TFM) ezagutzera emateko. Lan horiek artea eta kultura garaikidearekin lotuta egin dira azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoko, Frantziako eta Akitaniako unibertsitateetan eta goi-mailako hezkuntzako erakundeetan.

Jardunaldi hauetan, askotariko espezialitateetako 16 lan biltzen dira (hainbat diziplina artistiko, Artearen Historia, Filosofia eta Estetika, Musika, Antropologia, Soziologia, Hezkuntza Artistikoa, Ikus-entzunezko Komunikazioa, etab.), proposamen eta lengoia artistiko garaikideekin zerikusia dutenak.

Ikasgeletan sortutako ekarpen horien berri emateaz gain, jardunaldien bidez sorkuntza artistiko garaikidearen inguruko hainbat diziplinatako eta ezagutza-alorretako graduatuen arteko topagunea sortu nahi da.

Urriaren 26an, asteazkena, 09:00etatik aurrera

Sarrera doan, 945 20 90 20 telefonoan aldeztu aurretik izena emanda

Arte garaikideko Dokumentazio Zentroen XI. topaketak



Edizioz edizio, informazioaren profesionalak esperientziak trukatzeko, kudeaketa-estrategia berriei buruzko gogoeta egiteko, eztabaida sortzeko eta lankidetzak sustatzeko esparru izan dira topaketa horiek, ikerketa bultzatzen eta gizartearen premiekin bat datozen kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskaintzen laguntzeko.

Aurtengo edizioan, besteak beste, ondare-zentroetako proiektuak garatzeari, artxibo eta bilduma berezien kudeaketari, informaziorako sarbide integralari eta dokumentu-funtsetako genero ikuspegiari helduko zaie.

Parte-hatzaileak: Olimpia López (Galiziako Xunta), Alicia Pastrana (Espainiako Liburutegi Nazionala), Nausica Sánchez eta Ixiar Iturzaeta (Chillida Leku Museoa), Andra Darlington (Getty Ikerketa Institutua), Ana Martí Testón (Valentziako Universitat Politècnica eta REMED), Yolanda Cardito (Pradoko Museo Nazionala), Laura Pelayo (Reina Sofía Museoa) Jose Antonio Sainz (Arabako Foru Aldundia), Silvia Rodríguez eta Irene Cardaba (Gordailua), Pilar Cuerva (CREC), Albert Díaz eta María José Balcells (Bartzelonako Museu del Disseny) eta Elena Roseras (Artium Museoa).

Azaroaren 10ean eta 11n, 9: 00etatik aurrera

Publiko orokorra: 40 €

Akreditatutako ikasleak eta Artium Museoaren Adiskideak: 20 €

Izen-emateak: biblioteca@artium.eus. Izena, abizena eta harremanetarako telefonoa eman behar dira

Zinema feministaren historiak III



Essere donne. Cecilia Mangini, 1964

Hasieratik. Zinema feministaren historiak III

Zinema-ziklo honek emakume zinemagileak eta haien filmak ezagutaraztea du helburu. Zinema kanonikoaren historiatik kanpo geratu diren errealitate horiek nahitaez erreibindikatu beharrekoak dira, gure ustez. Hilean behin zuzendari bakoitzaren unibertso zinetatografikora hurbilduko gara.

Hiruhileko honetan Cecilia Manginiren edo Margarethe von Trotteren filmez gozatzeko aukera izango dugu, besteak beste. Hilean behin zuzendari horietako bakoitzaren unibertso zinetatografikora hurbilduko gara. Ibilbide posible bat, pixkanaka zinemaren gure historia berridazten jarraitzeko.

Tabakalera-Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren eta Artium Museoaren arteko lankidetzaz.

Urriaren 2an, azaroaren 13an eta abenduaren 4an, igandeak

Aurkezpenak, 18:00etan. Proiekzioak, 18:30ean

Tarifa: 2 € / Artium Museoaren Adiskideak: € 1

Argibide gehiago 945 20 90 20 telefonoan

Zinema feministaren historiak III



Heller Wahn (Sheer Madness).
Margarethe von Trotta, 1983

Urriaren 2an, igandea

Essere donne, Cecilia Mangini, Italia, 1964, 29 min

Ignotti alla citta, Cecilia Mangini, Italia, 1958, 11 min

La briglia sul collo, Cecilia Mangini, Italia, 1974, 15 min

La canta delle marane, Cecilia Mangini (gidoia: Pier Paolo Pasolini), Italia, 1960, 11 min

Maria et i giorni, Cecilia Mangini, Italia, 1960, 10 min

Standali, Cecilia Mangini (gidoia: Cecilia Mangini eta Pier Paolo Pasolini), Italia, 1960, 11 min

Aurkezpena: Daniella Shreir, Another Gaze aldizkari zinematografiko feministaren sortzailea eta editorea.

Azaroaren 13an, igandea

Sheer Madness, Margarethe von Trotta, Alemania, Frantzia, 1983, 105 min

Aurkezpena: María Zafra. Mostra de Film de Dones de Barcelona

Abenduaren 4an, igandea

Feministaldia saioa

Lankidetzeta Feministaldia Kultura Feministaren Jaialdiarekin

Aurkezpena: Mirari Echávarri, artista bisuala eta hezitzailea

Euskadiko Filmategia



Carmen y Lola. Aratxa Echevarria, 2018

Euskal emakume zinemagileak II

Euskadiko Filmategiak Euskal emakume zinemagileak zikloaren bigarren edizioa antolatu du urteko azken hiruhileko honetan, beren ibilbideetan gutxienez film luze bat grabatu duten euskal emakume zinemagileen talentua agerian jartzea helburu duen programa. Lehenengo edizioan bezala, zinemagile bakoitzak libreki hautatu du bere film guztien artean zein erakutsi nahi duen, eta jendaurrean aurkeztuko du.

Urriaren 13an

Carmen y Lola. Arantxa Echevarría, 2018, 103 min
Gaztelania

Urriaren 20an

Mujeres en pie de guerra. Susana Koska, 2004, 72 min
Gaztelania

Urriaren 27an

La higuera de los bastardos. Ana Murugarren, 2017, 103 min
Gaztelania

Azaroaren 10ean

1% esquizofrenia. Ione Hernández, 2006, 72 min
Gaztelania

Azaroaren 17an

Poética Pública PLAZA. Esther Pérez de Eulate, 2010, 70 min
Dialogorik gabea

Euskadiko Filmategia



Asier ETA biok. Amaia Merino, Aitor Merino, 2013

Azaroaren 24an

Toda la vida del mundo. Nuria Ruiz Cabestany, 2010, 52 min
Gaztelania

Abenduaren 1ean

Aztarnak. Maru Solores, 2021, 85 min
Euskara eta gaztelania, gaztelaniazko azpigituluekin

Abenduaren 8an

Anderea. Yolanda Mazkieran, 2020, 77 min
Euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa, gaztelaniazko azpigituluekin

Abenduaren 15ean

Asier ETA biok. Amaia & Aitor Merino, 2013, 94 min
Euskara eta gaztelania, gaztelaniazko azpigituluekin

Emanaldi bereziak

Azaroaren 3an –Pedro Oleari omenaldia
El bosque del lobo. Pedro Olea, 1970, 87 min
Zonbi eguna. Pedro Olea, 2015, 15 min

Urriko, azaroko eta abenduko ostegunetan, 19:00etan
Sarrerak, 3,5 €. Artium Museoaren Adiskideak: 2 €
25 urte azpikoak: sarrera doan (museoaren txartel-leihatilan)
Sarrerak non erosi: museoaren txartel-leihatilan eta artium.eus webgunean

LORATEGItik



Doako bisita gidatuak

LORATEGItik doako bisita gidatuen programa bat da, Artium Museoaren erakusketa-eskaintza osoa ezagutzeko hainbat ibilbide esperimentatzea proposatzen duena: eraikina, gure bilduma eta/edo aretoetako erakusketa monografikoak.

Bisita guztiak museoaren lorategitik abiatzen dira, auzoari berdegunea ekarri dion proiektua, boluntarioek zaintzen dutena.

Urrian, azaroan eta abenduan eskainitako ibilbideak (datak eta orduak kontsultatu):

- *Zeru bat, hamaika bide: praktika artistikoak Euskal Herrian 1977 – 2002 aldian*
- Néstor Sanmiguel Diest. *La peripecia del autómeta*
- Iván Zulueta *aren asaldura*
- Jutta Koether. *Black Place*
- *Artium osorik*

Asteazkenetan 18:00etan eta igandeetan 12:30ean

Erreserbak 945 90 20 90 telefonoan edo www.artium.eus webgunean

Bilduma_Gordailuan



Bilduma_Gordailuan

20. urteurreneko bisita gidatu bereziak

Museoaren 20. urteurrenaren barruan, museoako margolanen biltegietan erakusketa bat ikusteko bisita-programa bat jarri du abian museoak. Gehien mailegatu diren artelanen sorta bat biltzen du erakusketak.

Bilduma sortu zenetik, hango artelan askok ia mundu osoko erakusketetan parte hartu dute. Horrek gure funtsetan dauden artisten eta haien lanen ospea adierazten du, bai eta Bildumaren prestigioa ere.

Diskurtso berri batean, erakusketa berri batean parte hartzen duen lan bakoitzak erlazio eta esanahi geruza berri bat irabazten du. Proposatzen den egungo sorta, beraz, museoaren funtsen gaineko begirada anitzek egin dute.

Urtero, ia ehun pieza mailegatzeko dira beste zentro, erakusketa-areto eta museo batzuetako proiektu eta erakusketetarako.

Ez dira nahitaez lanik garestienak, ezta berritzaileenak ere. Pieza horien balioa harremanak eraikitzeko eta museoako profesionalen eta ikusleen arreta erakartzeko gaitasunean datza.

Bilduma_Gordailuan

Ikusgai dauden artelanak:

- Miquel Barceló: *Le peintre avec pinceau bleu*, 1983
 Carmen Calvo: *Serie escrituras*, 1985
 Miguel Ángel Campano: *Omphalos IX*, 1985
 Victoria Civera: *(Autorretrato) Sueño*, 1985
 Equipo Crónica: *Leer a Daumier*, 1975
 Elena del Rivero: *Les amoureeses (Elene & Rrose)*, 2001
 Esther Ferrer: *El autorretrato en el tiempo*, 1981-1994
 Patricia Gadea: *Van Gogh y su amigo*, 1985
 Juan Genovés: *El grito*, 1977
 Luis Gordillo: *Fumando dúplex más espacio abierto*, 1975-76
 Menchu Lamas: *O forzado*, 1985
 Manuel Millares: *Cuadro 67*, 1959
 Joan Miró: *Femme dans la nuit*, 1974
 Marina Nuñez: *Izenbururik gabea*, 1966
 Pablo Palazuelo: *Orto V*, 1969
 Pablo Picasso: *Mousquetaire à la pipe*, 1968
 Antonio Saura: *Portrait imaginaire de Phillippe II n° 3*, 1967
 Soledad Sevilla: *Te miras como tú eres*, 1988
 Antoni Tàpies: *Creu negra i diagonal*, 1973

Hileroko lehen larunbatean, 11:30ean

Sarrera doan. Toki mugatua

Informazioa eta erreserbak: 945 20 90 20 edo www.artium.eus

Familiantzako programak



Artium txikia

Igande goizetan, txikienek eta haien laguntzaileek Museoko erakusketetan arte garaikidea deskubritzeko eta lantegian era askotako teknika eta materialekin esperimentatzeko aukera dute.

Ordutegia: 11:15etik 12:30era

3-5 urte bitarteko haurrentzat, heldu bat lagun dutela. Euskaraz eta gaztelaniaz.

Sarrera: helduak 5 € eta haurrak 2 € / Museoaren Adiskideak: % 50eko beherapena

Urritik abendura

Argibideak eta erreserbak: 945 20 90 20

Eguberrietako Lantegiak



Etorkizuna proiektatuz

Artium Museoaren eta Barrutia Ikastolaren arteko lankidetzaren emaitza den lan luzearen zati bat biltzen duen *Etorkizuna proiektatuz* erakusketa hartuko dugu inspirazio-iturri. Barrutia Ikastolako ikasleek ekoiztutako 1:20 eta 1:100 eskalako maketek osatzen dute erakusketa hau.

Lantegian geure eraikinak, parkeak, ikastolak, kiroldegiak eta kaleak eraikiko ditugu. Gure hiriak amestuko ditugu, gure etxebizitza idealak, gure nahien eta beharren arabera gehiago bizitzeko moduak aztertuz.

5-12 urte bitarteko haurrentzat

Abenduaren 27tik 30era, 17:30etik 19:30era

Abenduaren 31n, eta urtarrilaren 3tik 5era, 11:30etik 13:30era

Argibideak eta erreserbak: 945 20 90 20



Artium Museoko Lorategia zaintzeko lantegia

Artium Museoko lorategi eta hiri-baratzeak zaintzea behar dute berritzeko, kontserbatzeko eta hazteko. Landareak zaintzeko eskua baduzu, baratzezaintza ezagutzen baduzu, edota, besterik gabe, denbora pixka bat baduzu eta auzoko txoko berde hau zaintzen ikasi eta lagundu nahi baduzu, eman izena programa honetan 945 20 90 20 telefonoan.

Ostiralero, 18:30ean

Lankidetzak

CinémArtium

Bilboko Institutu Frantsesarekin elkarlanean, hitzordua proposatzen du Artium museoak, hilean behin, frantsesezko filmak jatorrizko bertsoan ikusteko eta, ondoren, ikusitakoari buruzko ideiak eta iritziak partekatzeko solasaldia egiteko, frantsesez hori ere.

- Urriaren 25ean. *Polina, danser sa vie*, Valerie Müller eta Angelin Preljocaj. 2016, FR. azpittuluekin.
- Azaroaren 29an. *Si le vent tombe*, Nora Martirosyan. 2020
- Abenduaren 20an. *Nous les coyotes*, Hanna Ladoul eta Marco La Via. 2018, FR azpittuluekin

Hileko azken asteartean, 18:30ean
Sarrera doan. Toki mugatua
Argibideak: 945 20 90 20

danZálava

Araban gauzatzen den arte eszenikoetako profesionalei prestakuntza eta laguntza emateko programa bat da danzÁlava, eta publikoak bilatzea eta sensibilizatzea du helburu, sortzaileekiko gertuko elkarriketa baten bidez mugimenduaren hizkuntza berriak modu atseginean hurbilduz.

Florence Augendre (Frantzia/Belgika)

Augendrek —koreografo independentea, ikertzailea eta interpretea— hainbat arlo artistikotan garatzen du bere lana, hala nola antzerkian, zinema, dantza garaikidean, operan eta ikusizko arteetan.

- Lantegia: *Fasciopulsology into dance*
Urriaren 30etik azaroaren 1era
Argibideak eta erreserbak: danzalava@gmail.com
- Performance/inprobisazioa: Florence Augendre & Franck Hemmerlé
Urriaren 29an, larunbata, 19:30ean

Bernaola Zikloa 22/23 jaialdiarekin elkarlanean
Sarrera doan. Toki mugatua. Argibideak: 945 20 90 20

Mónica Valenciano (Las Palmas Kanaria Handikoa, 1961)

Dantzaria, koreografoa eta El Bailadero konpainiaren zuzendaria da, eta dantza garaikidearen irudi garrantzitsuenetako bat Espainian. 2012ko Dantzaren Sari Nazionala jaso zuen, koreografia modalitatean.

- Lantegia: *El cuerpo como lugar de aparición*
Azaroaren 26an eta 27an
Argibideak eta erreserbak: danzalava@gmail.com
- Jendaurreko emanaldia

Azaroaren 26an, larunbata, 20:00etan
Sarrera doan. Toki mugatua. Argibideak: 945 20 90 20

BILDUMA



Habitación, 1996. Eulàlia Valldosera

Artium Museoaren bilduma ondare-funts publiko aparta da, ia 2.400 artelanez osatua. Funts horien corpusak hogeigarren mendeko lanak eta egileak biltzen ditu, berrogeita hamarreko hamarkadatik gaur egunera arte egindako ekoizpenak batez ere. Bilduma honen berezitasunak definitzen du museoaren eginkizuna, funtsezko ekipamendua baita azken hamarkadetan Euskal Herrian garatutako praktika artistikoetara hurbiltzeko. Erakundearen eginkizun programatikoa da ikusgarritasun egokia ematea eta haren ondare-balioa gizarteratzea.

Izaera berezi horretatik abiatuta, museoaren bilduma eraikitzen ari den bilduma bat da, gaur egungo arte-adierazpen anitzetan barnertzeko ibilbidea erakusten duena. Premisa horretatik abiatuta, beti berrituz doazen paradigmatatik pentsatu behar da: genealogia berriak identifikatuz, eta orainarekin eta horrek planteatzen dizkigun gatazka eta erronkekin harremanetan egoteko gai diren enuntziazio-espazioak eraikiz. Horrela, museoko aretoetan zabaldutako erakusketa-programek narrazio anitzekin lan egiten dute, eta norberak bere ibilbideak egitea proposatzen dute, arte garaikidearen eta hori sortzen den testuinguruaren ulermena areagotzeko.

Bilduma, ikusgai



Gora, 2002. Jon Mikel Euba

Bildumako lanen txandaketa, museoaren 20. urteurrena dela-eta

Artium Museoa Bilduma izaera publikoko ondare-funts garaikide aparta da, eta une honetan 2.700 artelan baino gehiagok osatzen dute. Funts horien corpusak, funtsean, berrogeita hamarreko hamarkadatik gaur egunera arte egindako ekoizpena biltzen du.

Bilduma honen berezitasunak definitzen du museoaren eginkizuna, azken hamarkadetan Euskal Herrian garatu diren praktika artistikoetara hurbiltzeko funtsezko ekipamendua baita. Aparteko izaera horretatik abiatuta, Artium Museoarena eraikitzen ari den bilduma bat da, gaur egungo arte-adierazpenen aniztasunaren ibilbidea marrazten duena. Premisa horretatik abiatuta, beti berrituz doazen paradigmatan oinarrituta pentsatu behar da: genealogia berriak identifikatuz eta orainarekin eta honek planteatzen dizkigun gatazka eta erronkekin hitz egiteko gai diren enuntziazio-espazioak eraikiz.

20. urteurrenean, bildumako obra adierazgarrien sorta baten txandaketa aurkeztu nahi izan dugu, museoaren ondarearen ezagutza errazteko asmoz.

Bilduma, ikusgai

Programa honetan orain arte egondako obrak

Twins III, 1988. Txomin Badiola
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa Bilduma. Artium Museoa

Friso impar de negaciones, 1988. Juan Luis Moraza
Juan Luis Moraza Gordailua

Lucy, 1994. Dora García
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa Bilduma. Artium Museoa

Gora, 2002. Jon Mikel Euba
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa Bilduma. Artium Museoa

00 Pared abultada, 2014. Sergio Prego
Aitor Salegui Escolano Gordailua

No Osso (Occipital), 2020. June Crespo
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa Bilduma. Artium Museoa

Core, 2020. June Crespo
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa Bilduma. Artium Museoa

Una exposición sin arquitectura, 2021. Xabier Salaberria
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa Bilduma. Artium Museoa

Gaua, 1960. Nestor Basterretxea
Basterretxea Irurzun Familiaren Bildumaren Gordailua

Izenbururik gabea, d.g. Nestor Basterretxea
Basterretxea Irurzun Familiaren Bildumaren Gordailua


Izenbururik gabea, (Meridiano), d.g. Nestor Basterretxea
Basterretxea Irurzun Familiaren Bildumaren Gordailua

Izenbururik gabea, (Meridiano), d.g. Nestor Basterretxea
Basterretxea Irurzun Familiaren Bildumaren Gordailua

Colinas huecas n.º 3, 1984. Susana Solano
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa Bilduma. Artium Museoa

Datozen asteetan Gema Intxausti, Jordi Colomer, Eva Lootz, Juan Muñoz, Bene Bergado edo Elena Aitzkoaren lanak, besteak beste, sartuko dira hautaketa honetan.

Bilduma ibiltari



La Gran Bujía (mucho cuidado con la pintura), 1993. Ana Román

1993. urtearen amaieran, Ana Isabel Románek (Bilbo, 1962) *El jardín mecánico* erakusketa aurkeztu zuen Bilbon, bere familiaren lorategian hazten ziren loreen formatu txikiko 12 akriliko osatutako multzoa —zeinu gisako eskematizazioak—. Pieza horiek bere lehendabiziko *Ayudantes domésticos* direlakoekin bizi ziren, makinen zirriborroak, izenak ezarriz —besteak beste, *Lordinero*, *Espía*, *Planchadora*— gizatiartzen zituenak.

La gran bujía. (Cuidado con la pintura) Francis Picabiaren aipu bat da, une hartan egina, eguneroko eskakizunak —lehen sementa jaiotzearen zegoela— artearen praktikarekin lotzeko zailtasunen metafora gisa funtzionatzen zuen proiektu bat.

Artelan hori maileguan dago gaur egun Bilboko Arte Ederren Museoan, *BBKateak* proiektuaren zati gisa. Margolana egin zenean bezala, Bilboko museoan gertatuko den aldaketa funtzional drastiko baten aurrekoa da proiektu hori, eraikina handitzearena, hain zuzen ere. *BBKateak* erakusketak pinturaren genero tradizionalak eta lan garaikideak lotzen ditu, eta interpretazio berriak proposatzen, espero ez diren elkarteetan. Horrela, margolan honek, artistaren beste bi lanekin batera, Francisco de Goyak sinatutako 3 erretraturekin partekatzen du espazioa, interpretazio morfologikoei (materialak, kolorea, irudia, konposizioa) edo diskurtsiboei (harreman sozialak, pertsonen artekoak, sistemen arteko harremanak) irekitako hurbilketa batean.

Artelan nabermendua



Colinas huecas n.º 3, 1984. Susana Solano


Susana Solanoren (Bartzelona, 1946) lana Artium Museoaren bilduman ere badago, 1984an Arabako Foru Aldundiaren funtsetan ***Colinas huecas nº3*** sartu zenetik. 142 x 60 x 245 cm-ko eskultura honen bolumen biribilak eta akabera industrialeko metalezko xaflen erabilerak minimalismotik hurbil dauden proposamenetara garamatzate. Hala ere, artista katalanak agerian uzten ditu eraikuntza-prozesuaren zeinuak —soldadura-kordioak, erreminten arrastoa, mailukadak, beroak eragindako kolore-aldaketak—, eta piezari azala eta kontakizun bat eransten dizkio, barrualdean iradokitako espazioarekin batera, gorputza, grinak, arkitektura paisaia eta munduarekin duen harremana iradokitzen dizkigutenak.

Batez ere eskultorea izan arren, Solanok marrazkia, grabatua eta, oraintsuago, bideoa ere landu ditu; Bilduman presentzia duten lanak eta teknikak, materiarekiko, bolumenekiko eta espazioarekiko interesa adierazten dutenak. *Colinas huecas nº 3* museoaren atari aretoan dago gaur egun, *Bilduma, ikusgai* programaren barruan, Artium Museoaren 20. urteurrena dela-eta antolatatu den Bildumako lanen txandakatze batean.

HEZKUNTZA

LOTURAK CONEXIONES

hezkuntza proiektua
programa educativo



Ilustrazioa: Raixa Alava

ARTIUM MUSEOA 2022-2023

Museoa, eskola gisa

Artium Museoko Hezkuntza Sailaren helburua da museoaren programen hedadura handitzea, maila guztietako eskola-curriculumak eta adin desberdinetako bisitarien esperientziak aberasteko, bereziki.

Hain zuzen ere, eskola gisa ulertzen dugu museoa, aintzat harturik artearen pedagogiak zer-nolako indarra duen pentsamenduari, sentiberatasunaren eta gizartearen arloetan harreman adierazgarriak sortzeko gure ahalmenak sendotzeko.

Hala, Artium Museoaren hezkuntza-programek bidea ematen dute gure lurraldean mundua bizitzeko dauden moduen aniztasuna ezagutzeko eta ospatzeko eta horiei tokia egiteko, betiere tresna kritikoak bultzatuz arte garaikidearen bidez.

Artium Museoko Hezkuntza Sailaren jarduera guztiak berariaz pentsatuta daude museoko orotariko publikoei artearen esperientzia eskaintzeko eta bermatzeko. Eta, sentikorak baikara munduan gertatzen diren aldaketei buruz, etengabeko bilakaeran daude programa guztiak, gizartearen premia berrietara egokitzeko.



Barrutia Ikastolaren maketa, ikastetxeko ikasleek egina

Magnet-Erakarri

Barrutia Ikastolaren eta Artium Museoaren arteko lankidetzaproiektua

Magnet-Erakarri 2019an Barrutia Ikastolak eta Artium Museoak abian jarritako aliantza bat da. Eusko Jaurlaritzak sustatu eta Vitoria-Gasteizko Udalak babestutako hezkuntza-proiektu pilotu gisa sortu zen.

Magnet-Erakarrik helburu du hezkuntza-proiektu berritzaile eta erreferentziazko bat eraikitzea, zeinetan elkarlanean jardungo baitute bi erakundeek, artearen bidez garatzeko eskola-curriculum, irakaskuntza-jarduetarako tresna metodologiko gisa ulerturik artea. Aliantza horren bidez, ikasleen hezkuntza arloko emaitzak hobetzea eta eskolan eta ingurune hurbilean integrazioa sendotzea lortu nahi da.

Etorkizuna proiektatuz

2022ko irailaren 9tik 2023ko urtarrilaren 9ra

Etorkizuna proiektatuz erakusketak Artium Museoak eta Barrutia Ikastolak elkarrekin egindako lan oparoaren parte bat biltzen du. Hain zuzen ere, Barrutia Ikastolako ikasleek 1:100 eta 1:20 eskaletan egindako bi maketak osatzen dute erakusketa, baita maketa horiek eraikitzeke prozesuei buruzko dokumentazio bisualak ere. Maketa kode bisual bat da, hizkuntza berezi bat, bultzatzen gaituena itxura fisikotik harago jotzera eta beste toki bat, aurrez badagoena edo etorkizun dena, imajinatzerara; hala, maketak erakusten duena izango da isla (baldin eta tokia aurretik baldin bazegoen) edo etorkizuneko desira (baldin eta proiektua bada).

Barrutia Ikastolarekin proiektu hau garatu ahala eraikitako esperientziek aukera eman digute ikaskuntzaren unea bera gozatzeko, osagai berri bat txertatuz hezkuntzan: plazera. Izan ere, gozamina lanean oparotasuna dakarren elementu gisa aurkezten duen ideia hori presente egon da guraso, irakasle, ikasle eta museoko hezitzaileen taldeekin eraiki ditugun konpromiso pedagogiko guztietan.

LIBURUTEGIA-DOKUMENTAZIO ZENTROA

Liburutegi eta Dokumentazio Zentroa edukiak eta esperientziak ikertu, ikasi eta sortzeko ingurune bat da, bere baliabide eta zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak kontuan hartzen dituena. Kulturaren eta arte garaikidearen esparruan eduki eta zerbitzu digitalak sortzea eta zabaltzea bultzatzen da.

Jarduketa ildo horren barruan, informazio estrategia bat garatzen ari da, dokumentazio baliabideen kudeaketa integralean oinarritua, zentroaren plangintza orokorraren funtsezko zati gisa. Alde horretatik, informazio- eta eragiketa-baliabide eta -prozesuen kudeaketa ezin hobea lortu nahi da, ikuspegi integratzaile eta globaletik. Batetik, museoko Dokumentazio Zentroan Artiker garatzen da, dokumentu-ondarea zabaltzeko tresna.

Kudeaketa eraginkorragoa lortzeko eta dokumentu-funtsak eta museoko jarduerak eta edukiak hobeto ezagutu eta zabaltzeko, argazki-artxiboa, jardueren artxiboa eta Artiumeko erakusketa-artxiboa sistematizatzen, katalogatzen, digitalizatzen eta zabaltzen ari gara.

Bestetik, Dokumentazio Zentroak dokumentu-atari bat du, etengabe eguneratzen dena, DokuArt. Plataforma horretan eskuragarri dago Bilduman dauden edo museoko erakusketetan parte hartzen duten artistei buruzko dokumentazioa.

Proiektu horien bidez, ondarearen inguruan lan egiten duten prozesuen artean etengabeko jarioa izateko mekanismoak bultzatu nahi dira, barne-kudeaketa datu ikusgai eta eskuragarri bihurtuz.



Euskal Emakume Artisten, Praktika artistikoen eta Artearen Teoria feministen Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa

Ikerketa-gune propio eta espezializatua da, eta jakintza-arlo horrekin lotutako dokumentazioa biltzen du. Zentroak feminismoa ardatz duten testuinguru kultural, sozial eta politikoak ikertzeko euskarria eskaintzen du.

Dokumentazio Zentroaren helburua da praktika artistikoen eta ikuspegi feministen artean ezartzen diren harreman emankorretan interesa duten artista eta publikoen arteko plataforma eta topagune bihurtzea.

Euskal Emakume Artisten Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko funtsetarako sarbidea librea eta doakoa da; aldez aurretik hitzordua eskatu behar da 945 20 90 08 edo 945 20 90 12 telefonoetara deituz edo biblioteca@artium.eus helbidera mezu bat bidaliz.

Gomendatutako irakurgaiak

Euskal Emakume Artisten Dokumentazio Zentroak abian jarri duen lehen programetako bat irakurgai gomendatuena da. Hainbat artista, idazle eta profesionalak iradokitako argitalpenak dira, praktika artistikoei eta pentsamendu feministari lotuak.

Proposamen horri esker, gaian adituak diren pertsonak Artium Museoaren bibliografia- eta dokumentu-funtsa eratzten laguntzen dute —askotariko begirada eta irizpideekin aberastuta—, eta dokumentazio hori aktibatzeko ekintzak egiten ere bai.

Proposatutako liburuak erosi dira, eta Euskal Emakume Artisten Dokumentazio Zentroan kontsulta daitezke.

Programa honetan parte hartutako aditu batzuk dira:

- Gema Intxausti, artista
- Azucena Vieites, artista
- Lourdes Méndez, Arte Antropologian katedraduna
- Natalia Isla, artearen historialaria eta komisarioa
- Txaro Arrazola, artista
- Carmen Gaitán, Artearen Historiako eta Ondarearen Zientzialaria

Gomendatutako liburuen zerrenda osoa artium.eus (Artiker) webgunean kontsulta dezakezu.

EGUTEGIA

URRIA

- Lb 1** Bilduma Gordailuan
Ig 2 LORATEGItik
Artium txikia
Hasieratik. Zinema feministaren historiak
- Al 3** Museoa itxita
Ar 4
Az 5 LORATEGItik
Og 6
Os 7 Artium Museoko lorategia zaintzeko lantegia
Lb 8
Ig 9 LORATEGItik
Artium Txikia
Al 10 Museoa itxita
Ar 11
Az 12 Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
LORATEGItik
Og 13 Euskadiko Filategia. Euskal emakume zinemagileak II
Os 14 Artium Museoko lorategia zaintzeko lantegia
Lb 15
Ig 16 LORATEGItik
Artium txikia
Al 17 Museoa itxita
Ar 18
Az 19 LORATEGItik
Og 20 Euskadiko Filategia. Euskal emakume zinemagileak II
Os 21 Artium Museoko lorategia zaintzeko lantegia
Lb22
Ig 23 LORATEGItik
Artium txikia
Al 24 Museoa itxita
Ar 25 CinémArtium
Az 26 Ikasgeletatik espazio publikora. Gradu Amaierako Lanen aurkezpenak
LORATEGItik
Og 27 Euskadiko Filategia. Euskal emakume zinemagileak II
Os 28 Artium Museoko lorategia zaintzeko lantegia
Lb 29
Ig 30 danZálava
LORATEGItik
Artium txikia
Al 31 danZálava
Museoa zabalik 11:00etatik 14:00etara

AZAROA

- Ar 1** LORATEGItik
danZálava
Museoa zabalik 11:00etatik 14:00etara
- Az 2** Museoa itxita
- Og 3** Euskadiko Filmategia. Pedro Oleari omenaldia
- Os 4** Artium Museoko lorategia zaintzeko lantegia
- Lb 5** Bilduma Gordailuan
- Ig 6** LORATEGItik
Artium txikia
- Al 7** Museoaren etorkizunak: Elvira Dyangani Ose eta Yaiza Hernández
Museoa itxita
- Ar 8**
- Az 9** LORATEGItik
- Og 10** Arte garaikidearen Dokumentazio Zentroen XI. topaketak
Euskadiko Filmategia. Euskal emakume zinemagileak II
- Os 11** Arte garaikidearen Dokumentazio Zentroen XI. topaketak
Artium Museoko lorategia zaintzeko lantegia
- Lb 12**
- Ig 13** LORATEGItik
Artium txikia
Hasieratik. Zinema feministaren historiak
- Al 14** Museoa itxita
- Ar 15**
- Az 16** LORATEGItik
- Og 17** Euskadiko Filmategia. Euskal emakume zinemagileak II
- Os 18** Artium Museoko lorategia zaintzeko lantegia
- Lb 19**
- Ig 20** Artium txikia
LORATEGItik
- Al 21** Museoa itxita
- Ar 22**
- Az 23** LORATEGItik
- Og 24** Euskadiko Filmategia. Euskal emakume zinemagileak II
- Os 25** Artium Museoko lorategia zaintzeko lantegia
- Lb 26** danZálava
- Ig 27** danZálava
Artium txikia
LORATEGItik
- Al 28** Museoa itxita
- Ar 29** CinémArtium
- Az 30** LORATEGItik

ABENDUA

- Og 1** Euskadiko Filategia. Euskal emakume zinemagileak II
Os 2 Museoren etorkizunak: Asier Mendizabal
Artium Museoko lorategiaren zaintzaileak
- Lb 3** Bilduma Gordailuan
Ig 4 LORATEGItik
Artium txikia
Hasieratik, Zinema feministaren historiak
- Al 5** Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
Ar 6 Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
LORATEGItik
- Az 7** Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
LORATEGItik
- Og 8** Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
LORATEGItik
Euskadiko Filategia. Euskal emakume zinemagileak II
- Os 9** Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
Artium Museoko lorategiaren zaintzaileak
- Lb 10** Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
Ig 11 Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
LORATEGItik
Artium txikia
- Al 12** Museo itxita
Ar 13
Az 14 LORATEGItik
- Og 15** Euskadiko Filategia. Euskal emakume zinemagileak II
Os 16 Artium Museoko lorategiaren zaintzaileak
- Lb 17**
Ig 18 Artium txikia
LORATEGItik
- Al 19** Museoa itxita
Ar 20 CinémArtium
Az 21 LORATEGItik
- Og 22**
Os 23 Artium Museoko lorategiaren zaintzaileak
Lb 24 Museoa zabalik 11:00etatik 14:00etara
Ig 25 Museoa itxita
Al 26 Museoa itxita
Ar 27 Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
Eguberrietako lantegiak
Cinémartium
- Az 28** Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
Eguberrietako lantegiak
LORATEGItik
- Og 29** Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
Eguberrietako lantegiak
- Os 30** Museoa zabalik 11:00etatik 20:00etara
Eguberrietako lantegiak
Artium Museoko lorategiaren zaintzaileak
- Lb 31** Museoa zabalik 11:00etatik 14:00etara
Eguberrietako lantegiak

ERAKUNDE SORTZAILEA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ERAKUNDE BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE CULTURA
Y DEPORTE



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

BABESLE PRIBATUAK

EL CORREO
PAPEL DE COLORES VIVOS

euskaltel

Vital
FUNDACIÓN - FUNDAZIOA

ENPRESA BABESLEAK

eitb

ESTRATEGIA

Diario

CADENA
SEIZ

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Berria
Cadena COPE
Centro de Cálculo de Álava
Deusto Sistemas
El Mundo del País Vasco

Fundación Banco Santander
Fundación Michelin
Mondragon
Mondragon Lingua

Onda Cero
Onda Vasca
Radio Vitoria
Tubacex
Xabide, gestión cultural y comunicación